

# DIRU- ITURRIAK



Proiektu hau aurrera eramateko zenbait diru-iturri nahitaezkoak izango dira. Gure diru-iturri nagusia dendan **saldutako produktuetatik** ateratakoa izango da, hau da, **aktiboen salmentatik** aterako ditugu diru-sarrerak, hauek ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira (**efektibo eta txartelarekin**).

Honez gaiz, proiektua aurrera eramateko **diru-laguntzak** behar izan ditugu, alde batetik, proiektua aurkeztu eta Diputazioak diru-laguntza eman digu.

Bestalde Arantza Basagoiti eta Helena Espizua **Eginarez Eginenez** elkartearen izenean ere proiektua babestea erabaki dute. Elkarte honek denbora luzea darama Gasteizen aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideak aldarrikatzen instituzioetan zein kalean. Sexu hezkuntza eta sexuaren eskubidea askotan aldarrikatu dute eta horren bisibilizazioaren aldeko borrokan jarraitzen dute.





Diru-laguntza eta aportazioekin zenbait **gasturi** egin beharko diogu aurre proiektua martxan jartzeko (lokala, tailerrak, jostailuak, baliabide pertsonal zein materialak...). Ondoren, Diputazioan aurkeztu beharko dugu proiektuaren gastuak eta irabaziak. Honez gain enpresako **sortzailea den pertsona bakoitzak 2000€ tako aportazioa** egingo du negozioari hasiera emateko.

Aurretik azaldu dugun moduan, sexu hezkuntza eta sexu eskubidea era naturalago batean ikustaraztea aldarrikatzen da. Gehienetan gure bezeroek ezin baitituzte haien beharrak asetu hirugarren pertsona baten laguntza ez badute.

Beste leku batzuetan ez diete zerbitzu hauek eskeintzen ezta haien bizitza autonomoagoa eukitzeko edota sexualitateaz gozatzeko aukera ematen. Horregatik gure zerbitzuak hartzeko prest egongo liratezke.

